



Gipuzkoako Ur Kantsortzioa  
Gipuzkoako Urak

## **OBRA**

---

### ***HODIARAN SANEAMENDUA***



### **MUTRIKU**

---

**2020. .MARTXOA**



## AURKIBIDEA

Orria

1. MEMORIA .....	3
1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA.....	4
1.2 OBREN DESKRIAPENA .....	4
1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA .....	6
1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA .....	6
1.5 LANEN PLANGINTZA.....	7
1.6 AURREKONTUA.....	7
1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA .....	7
1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA.....	7
1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK.....	8



# 1. MEMORIA



## 1.1 AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

Mutrikuko saneamendu sareen kontserbazio eta mantentze lanen barnean, garrantzitsutzat hartzen da zaharkiturik edota hondaturik aurkitu daitezkeen sareen berritze jarraitua.

Zehazki, hondakin uren saneamendu eroanbide baten instalakuntzarako beharrezko diren ekintzak hartzen ditu kontuan proiektu honek. Gaur egungo eroanbideak izaera unitarioa du eta bideratutako erreka baten Urak barneratzen ditu.

Aipaturiko eroanbide berrira konektatuko dira hondiken uren beste kanalizazio batzuk, gaur egungo saneamendu sare unitarioa saneamendu separatibo izatera pasaz.

Euste horma bat dela eta, eroanbide bertikal bat kokatuko da hormari atxikita eta ostiko batez gaineztatua. Hodi hau, aipaturiko horma eta tamaina txikiagoko hormatxo baten tartetik jaitziko da hormatxoaren kanpoaldean dagoen kutxatila batean ateratzeko. Erregistro kutxatilak jarriko dira bai goikaldean eta baita behekaldean azterketa eta mantenua errazteko helburuz.

Eroanbide berriak isurtzen duen eroanbidea goi saneamenduko ganberarakin konektatzea aurreikusten da.

Proiektatutako lanek ihesekin arazoak eman dituen ur hornidurako tarte baten berritzea ere barneratzen dute.

Proiektatutako hobekuntzek, 273 metro linealeko guztizko luzerako hodian instalakuntza aurreikusten dute, saneamenduan zein ur horniduran, ondorengo material eta diametroetan banaturik:

	MATERIALA ETA DIAMETROA	LUZERA
SANEAMENDUA	PVC Ø 400 mm.	204 m.l.
	PVC Ø 315 mm.	44 m.l.
UR HORNIDURA	FD Ø 100	25 m.l.

## 1.2 OBREN DESKRIBAPENA

Obrak izaera lineala du eta hodian berritzea, erregistro elementuen instalakuntza eta eraispen eta obra zibileko hainbat lan barneratzen ditu.

Aurrez, hartuneak eta eragindako zerbitzu kritikoenak aurkitzeko hobiak egingo dira



## **Saneamendua**

Zuinketan zehar ezinbestekoa izango eremuan bertan eragindako zerbitzuen identifikazioa eta hauen sakonerak zehaztea, eroanbide berriaren behin betiko sestra baldintza baitezakete. Egiaztapen hauek dagozkien hobeekin eta harguneen erabileraren zehaztapenarekin osatuko dira.

Erregistro putzuak hormigoi armatuzkoak izango dira, metro 1 baino diámetro txikiagoarekin. Hargune kutxatilik, hormigoiz eginak, 0,40 x 0,40 metroko barne dimentsiak izango dituzte.

## **Ur hornidura**

Eroanbide berriak gaur egungoak zerbitzuan mantenduz kokatuko dira. Hasiara batean, aukeraturiko trazatuek behin behineko desbideratzeen beharra saihesten dute.

Tarte ezberdinak amaitu ahala, eta zerbitzuan jarri aurretik, tarte horren presio-proba egingo da, bai eta horren desinfekzioa ere.

Tarteak amaitu ahala, eragindako ingurune guztien birjartzeari, behin behinekoa edota behin betikoa, eta garbiketari ekingo zaio.

Lanak nagusiki ondorengoan datzate:

- Eraisketak.
- Zangak hondeatzea eta betetzea.
- Saneamendu eroanbide instalakuntza PVC Ø 400 mm eta PVC Ø 315 mm
- Ur hornidura eroanbide instalakuntza FD Ø 100 mm.
- Harguneen eta deribazioen konexioa.
- Fabrika-obren egikaritzea edota berritzea.
- Zoladuren birjartzea.

## **Afekzioak**

Obra honetan ondorengo afekzioak aurreikusten dira:

- Ibilgailuen trafikoarekiko afekzioak: Obraren kokapenak hilerrirako irisgarritasunean eragin handia aurreikusten du. Ibilgailuen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, zuzendaritza fakultatiboari eta Udaltzaingoari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.



- Oinezko trafikoarekiko afekzioak: Oinezkoen zirkulazioari edozein neurritan eragiten dioten jarduera guztiak, obra hasi aurretik, zuzendaritza fakultatiboari, udal teknikariei eta Udaltzaingoari eskatuak eta hauekin adostuak izango dira.
- Beste zerbitzu batzuekiko afekzioak: Beste zerbitzu batzuen gaineko afekzioei dagokionerako, Memoria honen 2. Eranskina dago.

### **Lan bereziak**

Obra honetan ez da lan berezirik edo gauzatze-sistema ezohikorik aurreikusten.

### **1.3 LURSAILEN ERABILGARRITASUNA**

Sare berriak diseinatzean, irizpide orokor gisa planteatu ohi da, kanalizazio berriak sareko maniobrak erraztu eta, ahal den neurrian, jabe pribatuei kalteak eragitea sahiesten dute lur publikoen, udal-bideen eta sarbide libreko eremuen azpian kokatzea.

Bigarren irizpide bat, sare berriak ordeztzen diren eta zortasuna duten sareen ondoan kokatzea da.

Kasu honetan, proiektaturiko eroanbideek irizpide orokor horiek betetzen dituzte, beraz ez da aurreikusten baimenen kudeaketa beharrik.

### **1.4 UREZTATZE AHOEN ETA SUTE AHOEN INSTALAKUNTZA**

#### ***Ureztatze ahoak***

Proiektu honetan ez da aurreikusten ureztatze-ahorik jartzea. Udalak unitateren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik.

#### ***Sute ahoak***

Proiektu honetan sute aho baten berritzea edota birkokatzea aurreikusten da. Udalak unitate gehigarriren bat jartzea beharrezkotzat joko balu, Gipuzkoako Uraki jakinarazi beharko dio obrak hasi aurretik.



## 1.5 LANEN PLANGINTZA

Obra honen exekuziorako 16 asteko epea aurreikusten da.

	ASTEA											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
ZUINKETAK	■	■										
IRISPIDEAK ETA HODIEN BANAKETA	■	■										
SANEAMENDU HODITERIA		■	■	■	■	■	■	■	■	■		
SANEAMENDU LOTURAK								■	■	■		
UR HORNIDURA HODITERIA								■	■	■		
UR HORNIDURA LOTURAK									■	■		
BIRGAITZEAK										■	■	■
ERREMATEAK												■

## 1.6 AURREKONTUA

Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren zenbatekoa EHUN ETA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOKOA (114.384,53€).da.

Kontrata bidezko Gauzatze Aurrekontuaren zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI MILA LAUREHUN ETA BOST EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMOKOA (138.405,28€) da, B.E.Z.a barne.

## 1.7 OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

“Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana” Memoria honetako 1. Eranskinean dago.

Oinarrizko azterlana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatuz idatzi da.

## 1.8 HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA

“Hondakinen Kudeaketa Azterlana” Memoria honetako 3. Eranskinean dago.

Hondakinen Kudeaketa Azterlana Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz idatzi da.



## 1.9 PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

Proiektua ondorengo dokumentuez osatua dago:

- |              |   |
|--------------|---|
| 1 Dokumentua | MEMORIA   |
|              | Memoria   |
|              | 1. Eranskina - Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterlana     |
|              | 2. Eranskina - Eragindako Zerbitzuak                          |
|              | 3. Eranskina – Hondakinen Kudeaketa Azterlana.                |
| 2 Dokumentua | PLANOAK   |
|              | 1. Kokapen planoa   |
|              | 2. Saneamenduko Egungo Egoeraren oinplanoa                    |
|              | 3. Saneamenduko Egoera Proiektatuaren oinplanoa               |
|              | 4. Hornidurako Egungo Egoera eta Egoera Proiektatua oinplanoa |
|              | 5. Korapiloen Ataltze planoa                                  |
|              | 6. Saneamendu Zanga Ereduen planoa                            |
|              | 7. Saneamendu Xehetasunen planoa                              |
|              | 8. Hornidura Zanga Ereduen planoa                             |
|              | 9. Hornidura Xehetasunen planoa                               |
| 3 Dokumentua | BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA                             |
| 4 Dokumentua | AURREKONTUA   |

Donostia, 2020ko apirila

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Gipuzkoako Urak, S.A.